# HITZ EGINGO DUGU?

1. ZK

ALEA DOHAINIK



GIB-A GELDIARAZTEA GUZTION ERANTZUKIZUNA DA

## INFORMA ZAITEZ, ETA PARTEKA EZAZU GIB-ARI BURUZ DAKIZUNA




**www.cruzroja.es**
**900 111 000**

Ikasi haren historia komiki honetan

GOBIERNO DE ESPAÑA
MINISTERIO DE SANIDAD, POLÍTICA SOCIAL E IGUALDAD

www.mspsi.es


KAIXO, DANIELA DUT IZENA
NIRE HERRIALDEA ATZEAN UTZI NUEN EGUNEAN OSO URDURI NENGOEN
ESPAINIAN, HEMENGO ADISKIDEAK AURKITU NITUEN, MIGUEL ADIBIDEZ, ETA BAITA HANGOAK ERE, LUIS ALBERTO ADIBIDEZ. NIRE PISUKIDEAK DIRA
DANIELA, MIGUEL ETA BIOK JATETXERA GOAZ, ARRATSALDEKO TXANDA DUGU GAUR ETA
GKE-N GAZTELANIA ESKOLAK EMATEN BUKATU BEZAIN LASTER HOTS EGINGO DIZUET, ADOS?
ADOS, AGUR
IRYNA!, GAUR URTEBETE DA HEMEN LANEAN ARI ZARELA, EZTA?
BAI! NORK ESANGO ZIDAN, BADA, NIRE HERRIALDETIK HONA HELDU NINTZENEAN...
ETA? OSPATUKO DUGU?
JAKINA, MARIA. GKE-N IKUSIKO DUGU ELKAR, GAZTELANIA-ESKOLEN OSTEAN, GAUR FESTA DUGU ETA!


GAUR HITZ BERRI ASKO IKASIKO DITUGU. IZAN ERE, GIB-ARI BURUZ MINTZATUKO GARA. HORREGATIK, NORBAIT DUGU GAUR HEMEN GUREKIN
VIH SIDA PRESERVATIVO PREVENCIÓN
KAIXO, CARMEN NAIZ. GKE HONETAN EGITEN DUT LAN, ETA GIB-ARI BURUZ MINTZATUKO NATZAIZUE, PROFESIONAL MODUAN, BAITA KALTEDUN MODUAN ERE
LEHENIK ETA BEHIN, BA AL DAKIZUE ZEIN DEN GIB-AREN ETA HIES-AREN ARTEKO DESBERDINTASUNA?
???
¡¡??!!
???
...
???
...
HIESA GAIXOTASUNA DA, GIB-AK ERAGINDAKO GAIXOTASUNA
GERO ETA GEHIAGO DIRA HIESIK EZ DUTEN GIB-DUNAK, BAINA, HALA ERE, GIB-A TRANSMITITU DAITEKE EZ BADIRA NEURRI EGOKIAK HARTZEN
VIH SIDA PRESERVATIVO PREVENCIÓN
BALITEKE NORBAITEK GIB-A IZATEA ETA ONGI EGOTEA, BAINA, SENDAGAIAK HARTZEN EZ BADITU, INFEKZIOA GARATU ETA HIES BIHURTUKO DA HANDIK URTE BATZUETARA
ETA BA AL DAKIZUE NOLA KUTSATZEN DEN GIB-A?


BARKATU, GEROKO FESTARAKO ENTSEATZEN ARI NINTZEN
KAIXO, IBRAHIMA, GIB-ARI BURUZ ARI GINEN HIZKETAN...
ESAN, IBRAIHIMA. ZUK BA AL DAKIZU NOLA KUTSA DAITEKEEN GIB-A?
NIRE HERRIALDEAN UME ASKO JAIOTZEN DA GIB-AREKIN
HALA DA, BAI: AMAK GIB-A KUTSA DIEZAIOKE HAU-RRARI HAURDUNALDIAN, ERDITZEAN, EDO BULARRA EMATEAN
BURURATZEN ZAIZUE BESTE MODURIK?
BADA, NIRE HERRIALDEAN, JENDE ASKO KUTSATU DA XIRINGA BERA ERABILTZEAGATIK
EGIA DA HORI. BESTE IDEIAREN BAT?
SEXU-HARREMANAK IZATEAN ERE TRANSMITITZEN DA, EZTA?


BAI, SEXU-HARREMANAK IZATEAN ERE TRANSMITITZEN DA, **PRESERBATIBORIK ERABILTZEN EZ BADA**
GIZONEZKOEN PRESERBATIBOA ERABIL DAITEKE, EDO EMAKUMEZKOENA
GAINERA, SEXU-TRANSMISIOZKO INFEKZIOEI AURREA HARTZEN LAGUNTZEN DIGU PRESERBATIBOAK
ETA, HORREZ GAIN, HAURDUNALDIAK ERAGOZTEKO BALIO DU, SEME-ALABA GEHIAGORIK IZAN NAHI EZ BADUZU
ETA NORK ESANGO DIT ORAIN NOLA **EZ DEN KUTSATZEN?**
SENEGALEN BETI ESAN DIDATE ELTXOEK EZ DUTELA GIB-A TRANSMITITZEN
OSO ONGI! HORI PENTSATZEA OSO HUTSEGITE OHIKOA DA, BAI... ADIBIDE GEHIAGORIK?
MUSU EMATEAN ERE EZ DA KUTSATZEN
LAZTAN EGINEZ ERE EZ
EZTA BESARKADEKIN ERE
HALA DA! EGUNEROKO HARREMANETAN EZ DAGO GIB-A TRANSMITITZEKO ARRISKURIK


ETA NOLA JAKIN DEZAKEGU GIB-A DUGUN ALA EZ?
GIB-AREN PROBA EGINEZ EDOZEIN OSASUN-ZENTROTAN, ETA BAITA GKE BATZUETAN ERE
PROBA HORI DOHAINIK DA, ETA GKE BATZUETAN EZ DA BEHARREZKOA IZENA EMATEA
NIRI ESAN DIDATE EZIN DUTELA ZURE BAIMENIK GABE EGIN, ETA EMAITZA, BERRIZ, PERTSONALA DELA
EGIA DA HORI, IBRAHIMA
ETA EMAITZA POSITIBOA BADA, BADIRA GKE BATZUK, HAUXE ADIBIDEZ, ZEINETAN GIB-A DUTEN BESTE PERTSONA BATZUK EZAGUTU BAITITZAKEGU, LAGUN DIEZAGUKETENAK
HORIXE EGIN NUEN NIK
GIB-ARI BURUZKO INFORMAZIOA JASOTZEKO DOHAINEKO TELEFONO BAT EMANGO DIZUET, GALDERA GEHIAGO BALDIN BAZENUTE ERE
900 111 000
INFORMACIÓN VIH
HONA HEMEN!
A!, ETA GOGORARAZI NAHI DIZUET GAUR FESTA DUGULA GKE-N, ETA IBRAHIMAK JOKO DUELA


ZER IKASI DUZUE GAUR?
BETI ERABILI BEHAR DELA PRESERBATIBOA!
CARMENEK ETA DANIELAK GIB-ARI BURUZKO HITZ BERRIAK ETA OSO GAUZA INTERESGARRIAK IRAKATSI DIZKIGUTE
NI EZ NAIZ INOIZ PRESERBATIBORIK GABE IRTETEN!
EZTA NI ERE EMAKUMEZKOEN PRESERBATIBORIK GABE!
FEMALE CONDOM
HITZ EGINGO DUGU?
INFORMA ZAITEZ, ETA PARTEKA EZAZU GIB-ARI BURUZ DAKIZUNA




## INFORMA ZAITEZ

**Espainiako edozein puntutan zaudela, informa zaitez doan:**

Cruz Roja > 900 111 000 / informacionvih@cruzroja.es / www.cruzroja.es/vih/

900 ROSA > 900 601 601

**GIBaz eta HIESaz arduratzen diren Espainiako GKEen aurkibidea:**

http://www.red2002.org.es/prgm/inici.htm

**Informazioa hiri eta autonomia-erkidegoen arabera**

| | | |
|---|---|---|
| Andalucía | 900 850 100 | www.juntadeandalucia.es/salud/vih |
| Aragón | 900 111 000 | www.saludpublicaaragon.es |
| Asturias | 985 338 832 | www.pruebadeamor.org |
| Baleares | 971176855 | www.portalsalut.caib.es |
| Canarias | 902 114 444<br>922 237590 | www.gobiernodecanarias.org/<br>sanidad/scs/sida.htm |
| Cantabria | 942 207 745/732 | www.saludcantabria.org |
| Castilla-La Mancha | 900 111 000 | www.jccm.es |
| Castilla y León | 983 413 600 | www.salud.jcyl.es |
| Cataluña | 900 212 222 | www.gencat.cat/salut |
| Extremadura | 924 382 641/594 | www.saludextremadura.com |
| Galicia | 881 542 914 | http://dxsp.sergas.es |
| Madrid | 900 111 000 | www.madrid.org / www.sitelias.net |
| Murcia | 900 706 706 | www.murciasalud.es |
| Navarra | 848 423 396 | www.isp.navarra.es |
| País Vasco | 943 006 464 | www.euskadi.net/sida |
| La Rioja | 941 291 976 | www.riojasalud.es |
| Comunidad Valenciana | 900 702 020 | www.sp.san.gva.es |
| Ceuta | 856 205 009 | www.ceuta.es:8080/sanidad/principal/ |
| Melilla | 952 976 251 | www.melilla.es |